

EH Bildu Amurriok Gobernu Taldearen gaitasun eta lidergo eza salatzen du

EH Bildu Amurrio udal-taldeak haserrea adierazi nahi du PNVko Gobernu Taldearen jokaeraren aurrean

ADIFek aurten esleituko du Amurrioko geltoki nagusiaren azpiko pasabideen proiektua, bi aldeetako nasak konektatu eta trenbideak gurutzatzea suposatzen duen arriskua ekiditeko.

EH Bilduren ustetan, albiste hau Amurrioko Udala osatzen dugun talde politiko ezberdinei jakinarazi beharko litzaike, honek duen interesa eta garrantziaz gain, hezibide eta adeitsaunagatik, dagokion Batzorde Informatiboan edo eskumena duen Gobernuko organoan. Baina beste behin ere, Alkateak prentsaren aurrean iragarri du.

Pasaden ekainaren 8an, EH Bildu Amurriok atxikitzen den mozioa sartu zuen, non aldez aurreko gogoetak egin eta gero, hurrengo eskaerak ezartzen ziren:

1. Amurrioko Osoko Bilkurak ADIF premiatzen du Amurrioko geltoki nagusia egokitzeko proiektuan honakoak kontuan izatea:

- Mugikortasun murriztua duten pertsonen bagoietara zein gainerako instalazioetara irisgarritasuna bermatzea.
- Nasa guztietarako sarbide segurua bermatzea azpiko pasabide baten bitartez.
- Amurrio Ferrocarril y Equipos lantegiko langileentzako oinezkoentzako pasabidea egitea.
- Erreta dauden biltegien birgaitzea edota eraistea.
- Geltokiaren erabiltzeleentzako komun publikoak.
- Herrirako sarbide nagusietako horri paisaia kalitatea ematea.

2. PNVko Gobernu Taldea premiatzen dugu ADIFekin elkarriketak abiatzera, akordio batera heltzen saiatzeko, pasabide hori baliatu ahal izateko Landako-Maskuribai auzoen eta Dionisio Aldama kalearen arteko oinezkoen lotura ahalbidetzeko.

3. Amurrioko Osoko Bilkurak ADIF premiatzen du 6 hilabeteko epean Amurrioko zein gainontzeko Batzar Administratiboetan dauden geraleku eta pasabideetan egiteke dauden lanei buruzko kronograma aurkeztera.

4. Gobernu espainiarraren utzikeriaren eta arduragabekeriaren aurrean, Amurrioko osoko bilkurak tranbideen gaineko eskumenak EAEko gobernuari transferitzeko eskatzen dio.

5. PNVko Gobernu Taldeari eskatzen diogu hemendik aurrera, prentsara jo baina lehen, gainerako udal taldeei proiektu honi buruzko informazioa eman diezagula.

6. Erabaki honen berri ADIFi, Gobernu espainarri eta Administrazio batzordeei ematea.

Mozio hau Politika Ekonomikoak eta Funtzio Publikoa batzordean tratatu zen. Batzorde horretan, alaketaren bat egitea adostu zen. Aipatutako alaketa Bozeramaileen Batzordea baino lehen egitea ezinezkoa izan zen, beraz, ez zen Osoko Bilkurako Gai Ordenean sartu.

EH Bildu Amurriok Osoko Bilkuran proposatu zuen mozioa Gai Ordenean sar zedin, urgentzia gainditu ostean, baina PNVk PP eta PSEk ematen dion gehiengoarekin atzera bota zuten, Osoko Bilkuran mozioaren eztabaida ebatsiz.

EH Bildu Amurriok uste du beharrezkoa ez zen jarrera eduki zutela, doakoa eta nahiko desegokia, udal-talde honek ez duelako gai honi buruzko ikuspuntua emateari eta eztabaidatzeari uko egingo. Nahiz eta komenientziazko gehiengoak, PNV-PP-PSE, zorrozkeria eta harrokeria erakutsi dezan

Bestalde, koalizioak era negatiboan nabarmendu nahi du Amurrioko Udala lehenengo momentutik egon izan beharko lukeela ADIFek Amurrion egin nahi duenaren jakitun. Asko eragiten gaituelako, pertsonen segurtasunagatik, pertsona horien mugikortasunagatik eta baita eremu horren etorkizun urbanistikoagatik ere.

Baina beste behin, Alkatea ez da espero bezala aritu. Ez dago etorkizun-senik, ez dago proiekturik Amurrirentzat. Ez daukate gidaritzarik, Eusko Jaurlaritzza eta Arabako Foru Aldundian dauden kideek herri honetarako onartzen dituzten gauzei sumisioa eta mendekotasuna besterik ez. Dudarik gabe, aukera galdu bat, beste akats historiko bat. Eta ez la lehena.

Amurrion, 2017ko uztaila